

# **Kontseilua eta Irurtzungo udalaren arteko hitzarmena hizkuntza-politika hobetzeko konpromisoa**

Euskararen Gizarte Erakundeek Kontseiluak eta Irurtzungo udalak hizkuntza-politika hobetzeko hitzarmenaren ondorioz, Kontseiluak 2008 urtean egindako udalerriaren hizkuntza-politikaren ebaluazioaren emaitzak aurkeztu du Euskara Batzorde ireki batean.

## **Sarrera**

2005 urtean Kontseiluak Udalen Hizkuntza-politikaren inguruko lan-ildo berezitu bat abiatu zuen. Dinamika honetan elementu ezberdinak azpimarra daitezke: arau-markoa hobetzeko ordenantza eredugarriak direlakoak sortzeko prozesua, hizkuntza-politika ebaluatzeko Kontseiluak sortutako tresna eta, ildo beretik, udalekin elkarlanean aritzeko proposatutako hitzarmenak.

## **Hitzarmena**

Hitzarmenaren funtsa elkarlana da. Horrela azaldu dute bi entitateek sinatutako hitzarmenean: “Elkarlana ematea administrazioetako arduradun politikoek eta euskalgintzaren eragile sozialen artean”. Hortaz, Irurtzungo udalak herriko hizkuntza-politika hobetzeko duen borondatea adierazi du. Hitzarmen horren bidez, udalak Kontseiluaren dinamikari babesa ematen dio eta ebaluazio honetan detektatutako hutsuneei konponbidea emateko konpromisoa hartzen du. “Kontseiluarekin elkarlanean aritzeko borondate argia eta sendoa adierazi dute”.

Kontseiluak, bere aldetik, sinatutakoa hitzarmen berezia dela nabarmendu du: “Irurtzungo udalak harrera ona egin dio Kontseiluak proposatutako elkarlanari eta jarrera hori eskertzekoa da”, adierazi dute Kontseiluko ordezkariak. Kontseiluak hitzarmen honen bidez udalaren hizkuntza-politika ebaluatzeaz gain, eboluzioaren jarraipena egingo du.

Kontseilua elkarlanean hasi da udalerriekin hizkuntza-politikak hobetzeko. Irurtzunen bezala, 25 herri baino gehiagotan sinatu da hitzarmen bera. Bestetik, UEMAK ere Kontseiluarekin ildo bereko hitzarmena sinatu du. Herri guzti hauetan hizkuntza-politika egiteko konpromisoa hartu dute udalek. Beraz, udalekin zein herrietako euskalgintzarekin elkarlanean, aztertutako herri guztietan egoera hobetzeko dinamika sortzea sustatuko du Kontseiluak.

## **Hizkuntza-politikaren ebaluazioa**

Egitasmo honen oinarria hizkuntza-politiken ebaluazioa dugu. Horren bitartez udal administrazioen lanean eragin nahi du Kontseiluak, euskararen normalizazioaren bidean ahalik eta pausorik eraginkorrenak eman daitezten.

Esandako helburuarekin udalerrien hizkuntza-politika aztertzeko metodologikoki zorrotz diseinatutako ebaluazio tresna sortu du Kontseiluak. Ahalik eta azterketa egokiena eta adostuena izan zedin, ehunka laguni ekarpenak egiteko aukera eman zaie. Aitu askoren ekarpenak jaso ditugu: soziolinguistenak, udaletako euskara teknikarrienak eta beste administrazio batzuetako teknikarrienak, besteak beste.

Ebaluazio hau jada Euskal Herri osoko 100 herri baino gehiagotan aplikatu da eta Kontseiluaren helburua hau da: 2011an herri guzti hauetan bigarren ebaluazioa egitea herri horien hizkuntza-politikaren eboluzioa aztertzeko.

## ***Irurtzungo ebaluazioa***

Neurketa hau termometro baten moduan ulertzen dugu, herri baten hizkuntza-politika eskala batean kokatzeaz gain, beste herrien politikarekin alderatzeko aukera ematen du.

Hemen aurkezten dugun Irurtzunen hizkuntza-politikaren azterketa 2008an bururatu zen. Hortaz, hemen eskaintzen diren datuak orduko errealitatearen argazkia dira, orduz geroztik gauza batzuetan aldatu dena.

Datu kuantitatiboari dagokionez, 2008ko ebaluazioaren arabera, Irurtzungo nota orokorra 3,89 puntukoa izan zen. Sakanan ebaluatutako herriekin alderaturik, Etxarri-Arantz (8,02) eta Altsasuren (5,64) atzetik gelditu zen Irurtzun.

Ebaluazioaren alde kualitatiboari dagokionez, elementu positiboak aurkitu genituen Irurtzungo udalaren hizkuntza-politikan, baina, euskara lehenesteari begira, hobetu beharreko hainbat kontu ere baziren.

**Positiboki nabarmendu** beharreko elementuen artean, besteak beste, ondorengo hauek aipatuko genituzke. Euskararen ordenantza bazegoen, ondoren gainera berritu dena. Euskararen aurrekontua, aurrekontu orokorraren %2tik gorakoa zen. Udal langileen esparruan euskalduntzeko erraztasunak eta laguntzak eskaintzen zaie. Hizkuntza paisaia eta komunikazioen arloan, hauek elebitan izatea arautua bazegoen eta kasu gehienetan betetzen zen (kasu batzuetan baita euskara lehenetsi ere). Bestetik, merkataritzan euskara sustatzeko politikak baziren. Azkenik, haurrei zuzendutako kirol eta aisialdiko udalaren eskaintzan euskarazko aukera bazegoen.

Bestetik eta ebaluazioan detektaturiko hutsuneak oinarri harturik, hona Kontseiluaren ustez **hobetu beharreko** hainbat puntu. Aipatu moduan, 2008an indarrean zegoen ordenantzan hobetu

beharreko hainbat elementu detektatu ziren. Ondoren, baina, ordenantza berria onartu da eta hutsune moduan agertzen ziren gai gehienak egun arautuak izan dira. Beharrezkoa litzateke Plangintza estrategiko bat izatea eta, udal langileen esparruan, Barne Erabilera plan bat izatea ere. Hain zuzen ere, detektatutako hutsune nabarmen batzuk Udalaren funtzionamenduarekin loturik zeuden: euskara kasu guztietan zerbitzu-hizkuntza izateko, baita lan-hizkuntza izateko ere. Kanpo zerbitzuen esparruan ere arau mailako hutsuneak baziren —egun zuzendu direnak— baita maila praktikoan ere, zerbitzu horien kontratazioetan ez baitziren beharreko hizkuntza-irizpideak ezarri. Hizkuntza paisaian zein komunikazioetan, batetik, beharrezkoa ikusten zen euskarari lehenetasunezko trataera emateko, ondoren onartutako ordenantzan bermatuko dena eta, bestetik, praktikan dauden hainbat inkoherentzia zuzentzeko ere (erdara hutsezko jakinarazpenak edo errotuluren bat). Euskararen sustapenaren arloan ere baziren hobetzeko moduko elementua batzuk: batetik, erabilera sustatzeko programak lan munduari begira, bestetik, euskalgintzako eragileek jaso zituzten dirulaguntzak eta, azkenik, herritarrei begirako eskaintza kulturala, kirol esparrukoa zein aisialdikoa (udalarena zein beste eragileena izanik ere).